Artículo 14.- Procedimiento para formación de los grupos políticos.

Los concejales se constituyen en grupos políticos en los siguientes términos:

1.- No se establece un número mínimo de concejales



politikoa osatzeko.

2. Udalbatza berria eratu ondoren zinegotziek 5 laneguneko epea izango dute taldea osatzeko, zeinaren berri Idazkari nagusiari idatziz emango baitiete. Epearen barruan ez balitz taldea osatuko, Udalbatzak, salbuespen gisa, onar dezake epez kanpo taldea osatzea, beti ere aldeaz aurretik taldeko partaideek espresuki eskaera egin ondoren eta atzerapena eragin duten arrazoiak egiaztatu ostean. Edonola ere, aipaturiko idatzi horiek partaide guztiek sinatuta egon beharko dute, eta gainera, aldeaz aurretik zinegotzi-kargua hartuta eduki beharko dute.

3. Zinegotziren batek, kargua hartuta izanda ere, Udalbatza eratzen denetik bost eguneko epean, bere gogoz taldeari atxikitzen ez bazaio, Idazkaritzan idatzi bat aurkeztuko du eta atxiki gabea izatera pasako da. Geroago, bere jatorrizko taldean edozein unetan sartu ahal izango da, beti ere Udalbatzari idatzi bat aurkeztuta, eta, baldin eta idatzia taldeko bozeramaileak babestua baldin bada. Aurreikuspen hau ez da aplikatu ahal izango hautes koalizio gisa aurkezturiko hautagaietan, baldin eta, koalizioko alderdiren batek berori uztea erabakitzen badu. Holakorik gertatuko balitz, nahiko luketen zinegotziek talde politiko bat osa dezakete, hain zuzen koalizioa utzitako taldearen ordeaz.

4. Talde politikoak eratzeko orduan bozeramailea izendatuko dute, eta, hala balegokie, baita ordezkia ere. Izendapen hau legegintzaldi osorako edo zati baterako izan daiteke, eta aldatu, aldatu daiteke taldeko partaide guztiek sinaturiko idatzia aurkeztu eta ondoren Udalbatzari berri emanda.

para constituir grupo político.

2.- El plazo de constitución de los grupos será de 5 días hábiles posteriores a la constitución del nuevo Ayuntamiento mediante el oportuno escrito ante la Secretaría General. Transcurrido dicho plazo sin que se hubiera constituido el grupo, podrá el Pleno excepcionalmente aceptar la constitución del grupo fuera de plazo por medio de acuerdo expreso previa solicitud de los miembros del grupo y acreditación de los motivos que hayan originado el retraso. En cualquier caso los escritos a que se hace mención deberán estar firmados por todos los miembros y estos deberán haber tomado previamente posesión de sus respectivos cargos de concejales.

3.- El Concejales que, aunque haya tomado posesión de su cargo, no se adscriba voluntariamente a su grupo político en el plazo de los cinco días posteriores a la constitución del ayuntamiento mediante escrito presentado en Secretaría al efecto, pasará a ser no adscrito. Posteriormente podrá integrar su grupo de origen en cualquier momento mediante escrito que presentará al Pleno y que vendrá avalado por el portavoz del grupo. Esta previsión no será de aplicación en el caso de candidaturas presentadas como coalición electoral cuando alguno de los partidos que la integran decida abandonarla. Producido dicho supuesto, los concejales que lo deseen conformarán el grupo político que constituya el partido integrante de la coalición abandonada.

4.- Los grupos políticos, al constituirse, designarán su portavoz y, en su caso, el suplente del mismo. Esta designación puede ser para toda la legislatura o para un período de ella y puede ser modificado en cualquier momento mediante escrito firmado por todos los miembros del grupo, dando posterior cuenta al Pleno.



5. Taldeen barne-jarduna printzipio demokratikoen araberakoa izango da. Horrela, talde heterogeneoen bozeramaileak, adibidez talde mistokoak, taldearen iritzi eta joera guztiak errespetatuko ditu, talde txikiei ere aukerak emanez. Edonola ere, bozeramailea eta ordezkoa taldeko partaideek demokratikoki hautatuko dituzte.

15. artikulua. Atxiki gabeko zinegotziak.

Zinegotziren bat ez balitz sartuko hautatua izan den hautes-taldeak osatuko lukeen talde politikoan, edo jatorrizko taldea utziko balu, **atxiki gabeko partaidetzat** joko da. Orduan, ondorengo eran jardungo dute:

1. Udalbatzetan ahotsa eta botoa izango dute.
2. Boto partikularrak eta zuzenketak aurkeztu eta defendatu ahal izango dituzte.
3. Galdera-eskaerak egin ahal izango dituzte.
4. Ezohiko bilkurak eskatu.
5. Ordezkaritza duten zinegotzien presentzia eta informazioa eskatu edo Gobernu Batzarraren kudeaketari buruzko eztabaidan esku hartu.
6. Eskubide guztiekin esku hartu zentsura-mozioetan eta konfiantza-arazoetatik sorturiko akordioetan.
7. Alkateordea, Gobernu Batzarreko partaide edo Alkatearen delegazioz udal batzordeko buru izendatua izan daiteke, eta dedikazio osoa edo partzial gisa ordainsariak jaso.
8. Udalbatzako gaiez informazioa jasotzearen, Udal

5.- La vida interna de los grupos se regirá por principios democráticos y en este sentido, los portavoces de grupos heterogéneos, como el mixto, representarán todas las opiniones y tendencias dentro del grupo dando opción a los minoritarios en su seno. En cualquier caso el portavoz y su suplente serán elegidos democráticamente por los miembros del grupo.

Artículo 15.- Los concejales no adscritos.

Aquellos concejales que no se integren en el grupo político que constituya la formación electoral por la que fueron elegidos o que abandonen su grupo de procedencia, tendrán la consideración de **miembros no adscritos**. Ejercerán su cargo en las siguientes condiciones:

- 1º podrán asistir con voz y voto a las sesiones de Pleno;
- 2º podrán presentar y defender votos particulares y enmiendas;
- 3º formular ruegos y preguntas;
- 4º solicitar sesiones extraordinarias;
- 5º formular requerimientos de presencia e información de corporativos que ostenten delegación, o debate sobre gestión de la Junta de Gobierno;
- 6º participar plenamente en la moción de censura y en los acuerdos derivados de la promoción de cuestión de confianza;
- 7º ser designado Teniente de Alcalde, miembro de la Junta de Gobierno, e incluso presidente de comisión municipal por delegación del Alcalde y ser retribuido si ejerce cargo con dedicación exclusiva o parcial.
- 8º podrán estar presente en las comisiones



batzordeetan esku hartu ahal izango dute botorik eta hitz egiteko eskubiderik gabe. Aurrekontuan horretarako ezarritako diru-kopurua jasoko dute, beti ere ondoko paragrafoan ezarritakoari kalterik eragin gabe.

Ez dute eskubiderik izango:

1. Talde politikoari dagokion kantitate finkoa jasotzeko.
2. Udalbatzaren ohiko bilkuratan mozioak aurkezteko, soilik talde politikoetako bozeramaileek egin dezaketelako.
3. Bozeramaileen Batzarrean ordezkari izateko.
4. Eskubide ekonomikoak eta politikoak ez dira jatorrizko taldean egonda zekizkiokeen baino handiagoak izango.

16. artikulua. Talde politikoaren baliabide ekonomiko, pertsonal eta materialak.

Talde politikoaren diru-asignazioak udal aurrekontuetan, legearen arabera, ezartzen direnak izango dira.

Talde politikoek euren eginkizunak egiteko Udaletxean bulegoak, langileak eta beharrezko ordenagailuak, nahiko babes teknikorekin, izango dituzte.

Talde politikoentzako izendatuta dituzten bulegoak libreki baliatu ahal izango dituzte. Lan-ordutegitik kanpo etorri nahi izanez gero, berriz, Alkatezari abisatu beharko zaio, honek Udaltzaingoari abisatu ahal izateko. Orobat, noiz behinka Udaletxeko aretoaren baten beharra izanez gero, Alkatezari jakinaraziko diote erabili ahal izateko.

municipales sin voz ni voto para informarse de los asuntos del Pleno, percibiendo las cantidades establecidas en el Presupuesto por asistencia a las comisiones sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo siguiente.

No tendrán derecho a:

- 1º percibir el abono de la cantidad fija a grupo político;
- 2º presentar mociones en las sesiones ordinarias del Pleno que esta reservado a los portavoces de los grupos políticos;
- 3º tener representación en la Junta de Portavoces;
- 4º sus derechos económicos y políticos no serán superiores a los que les hubiesen correspondido de permanecer en el grupo de procedencia.

Artículo 16.- Medios económicos, personales y materiales de los grupos políticos.

Los grupos políticos tendrán las asignaciones económicas que, de acuerdo con la regulación legal, fijen los presupuestos municipales.

Para el desarrollo de sus funciones dispondrán de despachos en la Casa Consistorial, de personal administrativo y elementos telemáticos con el soporte técnico necesario que se considere suficiente.

Los grupos políticos podrán utilizar libremente sus respectivos despachos que les sea asignado. El acceso, fuera del horario de oficinas, requerirá comunicarlo previamente a la Alcaldía para que gestione su libre acceso mediante aviso a la Policía Local. De igual forma, si puntualmente requiriesen el uso de otras salas dentro de la Casa Consistorial, procederán a comunicarlo a la Alcaldía con el objeto de asegurarles su uso.



HIRUGARREN KAPITULUA. ZINEGOTZIEN ESTATUTOA / CAPÍTULO TERCERO.- EL ESTATUTO DE LOS CONCEJALES.

17. artikulua. Printzipio gidariak.

Zinegotziek Toki-autonomiako Europako Gutunean jasotako ondoko printzipioen arabera jardungo dute: jarduteko askatasun-bermea izango dute; diru-konpentsazio egokia edukitzeko eskubidea eta dagokien gizarte segurantza; eta Legeek edo oinarritzko printzipio juridikoek diotenaren arabera jardungo dute bateraezintasun kasuetan.

Kargua hartu aurretik zinegotziak ondare eta interesen aitorpena egin beharko du, Interesen Erregistroan araudi honen 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

18. artikulua. Hautetsien ordainsariak.

Hautetsiek euren karguetan dedikazio osoarekin, partzialarekin edo gabe jardun ahal izango dute urte bakoitzerako udal aurrekontuetan ezartzen dena jasoz. Ordainsari horiek dedikazio eta erantzukizunaren arabera izango dira, hots, Udalbatzak espresuki halaxe errekonozituak.

Partaide orok arau orokorren arabera eta Udalbatzak aurrekontuetan gastuetarako ezartzen dituen gastu-kitapenak jasoko du.

Erabateko arduraldi-karguak Udalbatzak erabakiko ditu, eta hori dutenek Legearen arabera horretarako ezarritako ordainsariak jasoko dituzte. Gainera,

Artículo 17.- Principios rectores.

Los concejales ejercerán su cargo con arreglo a los siguientes principios recogidos en la Carta Europea de Autonomía Local: garantía de libertad en el ejercicio de su mandato; derecho a compensación financiera adecuada y cobertura social correspondiente, y determinación por Ley o principios jurídicos fundamentales de las causas de incompatibilidad con su mandato.

Como requisito previo para toma de posesión y el pleno ejercicio de su cargo, será preciso que el Concejal formule la correspondiente declaración en el Registro de Intereses conforme a lo dispuesto en el artículo 2 de este reglamento.

Artículo 18.- Retribuciones de los miembros electos.

Los miembros electos podrán ejercer su cargo en régimen de dedicación exclusiva, de dedicación parcial o sin dedicación, percibiendo las retribuciones que se fijarán en los presupuestos municipales de cada ejercicio. Tales retribuciones podrán ser moduladas en función del grado de dedicación y de responsabilidad que conlleven y sean así reconocidas expresamente en el acuerdo plenario que los establezca.

Todos los miembros percibirán las compensaciones por los gastos efectivos realizados en el ejercicio del cargo de conformidad con las normas generales de aplicación y las que establezca a estos efectos el Pleno municipal a través de sus presupuestos.

Los cargos con dedicación exclusiva serán establecidos por el Pleno y percibirán la remuneración que al efecto se establezca en los



Gizarte Segurantzaz alta emango zaie eta enpresariari ordaintzea dagokiona Udalaren gain izango da. Kargu hauen bateraezintasuna erabatekoa izango da, alegia, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen arabera, Administrazio Publikoetan lana egiten duten Langileen Bateraezintasunena, jardungo dute. Erabateko arduraldia duten zinegotzi-kargudunen izendapena Alkateari dagokio Udalbatzak erabakitzen duen kopuruaren arabera.

Zatiko arduraldi-karguak Alkateak izendatuko ditu Udalbatzak erabakitako kopuru eta mugen barruan. Dedicazio honekin batera egiten diren kargu-izendapenentzako karguan gutxienez egin beharko dituenak ezarriko dira dagozkion ordainsariak jaso ahal izateko. Gainera, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie eta enpresari ordaintzea dagokiona, beti ere dedikazioaren arabera tokatzen zaiona, Udalaren gain izango da. Kargu hauek bateragarriak izango dira, Legeak dioenaren arabera, jarduera pribatuak egin ahal izateko.

Soilik **ardurarik ez duten kargudunei** ordainduko zaie Udalaren organo kolektiboen bilkuretara etortzeagatik, alabaina, Udalbatzak ezarritakoaren arabera, Gizarte Segurantzaz ez zaie altarik emango.

Kargu publiko guztiek erantzukizun zibileko aseguruia izango dute, baita udal langileriak izango lituzkeen gainontzeko aseguru-polizak ere.

19. artikulua. Zinegotzien informazio-eskubidea.

1. Gobernu-eginkizunetan jarduteko xedez, hala nola

términos que dispone la Ley y serán dados de alta en la Seguridad Social siendo las cuotas empresariales con cargo al Ayuntamiento. La incompatibilidad de estos cargos con otra actividad es absoluta rigiendo al efecto la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas. La designación concreta de las personas que ejerzan el cargo de concejal con dedicación exclusiva corresponderá al Alcalde dentro del número determinado por el Pleno.

Los cargos con dedicación parcial los designará el Alcalde, dentro del número y límites que al efecto establezca el Pleno. En el acuerdo de designación de los cargos que lleven aparejada esta dedicación se establecerá particularizadamente el régimen de dedicación mínima al ejercicio del cargo para la percepción de la retribución que corresponda. Causarán alta en el Régimen General de la Seguridad Social, siendo por cuenta del Ayuntamiento la retribución de la parte proporcional de la cuota empresarial que le corresponda en función de la dedicación al ejercicio del cargo. Estos cargos serán compatibles con otras actividades privadas en los términos establecidos por la Ley.

Sólo **los cargos sin dedicación** serán retribuidos por asistencia a las sesiones de los órganos colectivos municipales sin que causen alta en la Seguridad Social conforme a lo que establezca el Pleno.

Todos los cargos públicos serán beneficiarios del seguro correspondiente de responsabilidad civil así como el resto de pólizas que se suscriban para el personal municipal.

Artículo 19.- El derecho de los concejales a la información.

1. A fin de ejercer sus responsabilidades de gobierno,



udal organo kolegiatuen edo kontrol eta fiskalizazio-lanak egiteko eskubideak eta betebeharrak betetzeko, zinegotzi guztiek eskubidea dute Gobernuko eta Administrazioaren edozein informazioa zuzenean jasotzeko, hori espedientearen tramitazio-egoera edozein izanda ere, beti ere, jakina, legez ezarritako mugak urratzen ez badira. Eskaturiko informazioa ukatuko balitzaie, ukazio horrek arrazoitua izan beharko du Udalbatzaren idazkariak derrigor egingo duen txosten juridikoan.

2. Udalaren administrazio-zerbitzuak —Udalbatzaren Idazkaritzari jakinarazi gabe— derrigor gongo dira ondorengo kasuetan informazioa ematera:

a) Kudeaketako ordezkariak edo erantzukizuna duten zinegotziak informazioa nahi dutenean.

b) Zinegotziak Udalaren organo kolegiatuko gaiari buruzko informazioa eta dokumentuak nahi dituztenean, baldin eta, horietako partaide baldin badira. Era berean, edozein udal organo hartutako erabaki edo ebazpenak eskuratzeko.

c) Udalbatzako partaideek herritarrentzako libre den informazioa eta dokumentuak jaso ahal izango dituzte.

3. Gainontzeko kasuetan, zinegotziak informazioa Alkateari eskatu beharko diote Sarrera Erregistroan eskariari sarrera eman eta Idazkaritzatik bideratuta. Alkatetzak ebazpen arrazoitua emango du eskatutakoa emanez edo ukatuz, eta bost eguneko

sus derechos y deberes como miembros de órganos municipales colegiados o sus funciones de control y fiscalización, todos los concejales tienen derecho a recabar directamente del gobierno y de la Administración cualquier información contenida en documentos existentes en poder de la Administración Municipal, cualquiera que sea el estado de tramitación en que se encuentre el expediente, siempre que su entrega no vulnere los límites legalmente establecidos. En caso de negación de la información solicitada, ésta deberá estar fundamentada en el necesario informe jurídico del Secretario General de la Corporación.

2. Los servicios administrativos municipales estarán obligados a facilitar la información, sin necesidad de comunicación a través de la Secretaría General del Pleno, en los siguientes casos:

a) Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación, que ostenten delegaciones o responsabilidades de gestión, a la información de las mismas.

b) Cuando se trate del acceso de cualquier miembro de la Corporación, a la información y documentación correspondiente a los asuntos que hayan de ser tratados por los órganos colegiados de que formen parte, así como a las resoluciones o acuerdos adoptados por cualquier órgano municipal.

c) Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación a la información o documentación municipal que sean de libre acceso para los ciudadanos.

3. En el resto de los casos, el concejal deberá solicitar la información al Alcalde vía Registro de Entrada y ante la Secretaría General. La resolución de la Alcaldía concediendo o denegando el acceso solicitado deberá ser motivado y recaer en el plazo



epean emango ez balu, administrazio-isiltasunagatik eskaera onartutzat joko da. Ondorio hauetarako Udaltzaren idazkariak ziurtagiria egingo du, zinegotziak informazioa jasotzeko balioko duena, eta informazioa eman behar dianak justifikazioa izan dezan.

4. Espedienteak, liburuak eta, oro har, dokumentuak kontsultatu eta aztertzeke ondorengo araei jarraituko zaie:

a) Zinegotziak edozein espediente edo dokumentu-aurrerakin kontsultatu nahi izanez gero, Artxibo orokorrean edo dagoen lekuan eskatu beharko du, gero bere bulegoan edo horretarako bideraturiko aretotan aztertu ahal izateko.

b) Inoiz ezingo dira espedienteak, liburuak edo dokumentuak Udaletxetik atera, ezta Udaletik kanpo dauden bulegoetatik ere.

c) Akta-liburuak eta Alkatearen ebazpen-liburuak kontsultatzeko Artxibategira edo Idazkaritzara, han baleude, joan beharko da.

d) Bilkuretako espedienteak dauden lekuan soilik, deialdia egin ostean, aztertu ahal izango dira.

5. Aurreko zenbakiko a) atalean aurreikusitako utziketa egiteko eta bidezko administrazio-kontrola egin dadin, interesdunak hartua dut sinatuko du, eta espedienteak edo dokumentazioa —espedientearen tramitazio-beharren arabera— luzeenaz berrogeita zortzi orduko epe barruan itzuli beharko da.

de cinco días naturales, al término de los cuales se entenderá concedido el permiso por silencio administrativo. A estos efectos el Secretario de la Corporación emitirá el correspondiente certificado que servirá para que el concejal interesado obtenga la información solicitada y también como justificación por parte del responsable del servicio requerido para que facilite la información.

4. La consulta y examen concreto de los expedientes, libros y documentación en general se regirá por las siguientes normas:

a) La consulta general de cualquier expediente o antecedentes documentales podrá realizarse, bien en el archivo general o en la dependencia donde se encuentre, bien mediante la entrega de los mismos o de copia al miembro de la Corporación interesado para que pueda examinarlos en el despacho o salas reservadas a los miembros de la Corporación.

b) En ningún caso los expedientes, libros o documentación podrán salir de la Casa Consistorial, o de las correspondientes dependencias y oficinas locales.

c) La consulta de los Libros de Actas y los Libros de Resoluciones del Presidente deberá efectuarse en el Archivo o en la Secretaría General donde se hallen.

d) El examen de expedientes sometidos a sesión podrá hacerse únicamente en el lugar en que se encuentren de manifiesto a partir de la convocatoria.

5. En el supuesto de la entrega previsto en el apartado a) del número anterior, y a efectos del oportuno control administrativo, el interesado deberá firmar un acuse de recibo y tendrá la obligación de devolver el expediente o documentación en un término máximo de cuarenta y ocho horas, en función de las necesidades del trámite del expediente en cuestión.



6. Zinegotziak informatzeko duen eskubidea ez da aplikatuko Udal-bulegoetan dagoen informazioari buruz azterlan bat egin nahi izanez gero.

6. El derecho a la información que asiste al Concejal no es de aplicación cuando lo que se pretende sea una elaboración o estudio sobre la información existente en las dependencias municipales.

20. artikulua. Zinegotziaren postontzia.

Zinegotziak postontzi bat edukiko du Udaleko zerbitzuen informazioa jasotzeko. Postontzia karguari dagokion eskubidea eta betebeharra izango da. Era berean, postontzi elektronikoa propioa edukiko du, hots, bere talde politikoari dagokionetik aparte, zeinak udal organo ezberdinetako bilkura eta bilera-deiak egiteko balioko duen. Zinegotziak, erregulartasunez, ohikoa postontzia zein telematikoa nola dagoen begiratu du, hain zuzen egiten zaizkion jakinarazpen, deialdi, etab.en berri izateko.

Artículo 20.- El buzón del Concejal

El Concejal dispondrá de un buzón convencional para todo tipo de comunicaciones provenientes de los servicios del Ayuntamiento. El buzón será un derecho y una obligación que conlleva el cargo. Asimismo dispondrá de un buzón electrónico propio, independiente del correspondiente al grupo municipal al que pertenece, que servirá para convocarle a las sesiones y reuniones de los diferentes órganos municipales. El Concejal estará obligado a verificar con regularidad el estado de su buzón, tanto el convencional como el telemático, al objeto de tener cumplido conocimiento de cuantas comunicaciones, convocatorias etc. sean extendidas a su nombre.

BIGARREN TITULUA. UDALBATZA / TITULO SEGUNDO.- EL PLENO MUNICIPAL

LEHENENGO KAPITULUA. OSOKO BILKURA. AURRE GOGOETAK / CAPÍTULO PRIMERO.- LA SESIÓN PLENARIA. CONSIDERACIONES PREVIAS

LEHENENGO ATALA. BILKURA MOTAK / SECCIÓN PRIMERA.- CLASES DE SESIONES.

21. artikulua. Bilkura-motak.

Udalbatzaren bilkurak ohikoak, ezohikoak eta presazkoak izan daitezke.

Artículo 21.- Clases de sesiones.

Por la periodicidad de la celebración de sesiones plenarios, estas se dividen en: ordinarias, extraordinarias y urgentes.

22. artikulua. Ohiko bilkurak.

Ohiko bilkurak aldez aurretik ezarritako aldizkatasunarekin egingo dira. Gutxienez hilean behin, eta eguna eta ordua, legegintzaldi hasieran, eraketa osteko ezohiko osoko batzarrean, ipiniko dira. Akordio horretan bertan, ezarritako egunak jaiagun edo opor garaia tokatuz gero, beste ordezk

Artículo 22.- Sesiones ordinarias.

Son las que se celebran con arreglo a una periodicidad preestablecida. La fecha de celebración ha de ser como mínimo mensual y se fijará, junto con la hora, al comienzo de la legislatura en el Pleno extraordinario que se celebre después de su constitución. En el mismo acuerdo se fijarán las



data batzuek jarriko dira, baita abuztuan osoko bilkura ez egiteko erabakia hartu ere.

Ohiko bilkurak gairik ez izanda ere egingo dira, Udalbatza, goreneko organo erabakitzailea izateaz gain, udal gobernu kontrolatzeko eta fiskalizatzeko organoa delako. Ondorioz, Udalbatza —nahiz eta gai zerrendan gairik izan ez— alde zuzenetik ezarritako datan deitua izango da.

23. artikulua. Ezohiko bilkurak.

Ohikoak egiteko ezarritako dataz kanpo egiten direnak dira. Horrela, Alkateak erabaki, edo gutxienez Udalbatzako kideen legezko kopuruaren laurden batek eskatuta, egingo da. Era berean, ezohiko bilkurak egingo dira Udalbatzak, araudi honen 65. eta 66. artikuluetan xedatutakoari jarraiki, hala erabakitzen duenean. Bilkura hauek indarrean dauden lege-zehapenen arabera burutuko dira, eta bereziki, ondorengoei jarraiki:

1.- Eskaera idatziz egingo dira, eta hala balegokio, eztabaidatu eta bozkatu beharreko testua.

2.- Ezohiko Udalbatza ezin izango da, eskaera egiten denetik, hamabost lanegun baino gehiago atzeratu.

3.- Deialdia egingo ez balitz automatikoki deitua geratuko litzateke, epea amaitzen denetik, hamargarren laneguneko eguerdiko hamabietan.

4.- Zinegotzi bakar batek ere ezin izango du, lehenengo deialditik, urtean zehar hiru aldiz baino gehiago eskatu.

Ezohiko bilkura eskatzeko eskubidea baliatzeko

fechas subsidiarias en el caso de coincidencia con fechas festivas o períodos vacacionales e incluso determinar el mes de agosto como mes inhábil a efectos de celebración de sesión plenaria.

Las sesiones ordinarias hay que celebrarlas aunque no haya temas en el orden del día, ya que el pleno, además de ser el máximo órgano decisorio, es un órgano de control y fiscalización del ejecutivo municipal. Por consiguiente, el Pleno ha de ser convocado en la fecha establecida aunque no haya asuntos en el orden del día.

Artículo 23.- Sesiones extraordinarias.

Son aquellas que se celebran fuera de la fecha preestablecida como ordinaria: cuando así lo decida el Alcalde o por solicitud de al menos un cuarto del número legal de miembros de la Corporación. Asimismo se celebrarán sesiones extraordinarias cuando el propio Pleno así lo decida en los supuestos regulados en los artículos 65 y 66 de este reglamento. Estas sesiones se regirán por las disposiciones legales vigentes y en particular las siguientes:

1.- Se solicitarán por escrito incluyendo, en su caso, el texto que se quiera someter a debate y votación.

2.- La celebración del Pleno extraordinario no podrá demorarse más de quince días hábiles desde su solicitud.

3.- Si no se convocara, quedará automáticamente convocado para el décimo día hábil siguiente al de la finalización del plazo a las doce horas.

4.- Ningún concejal podrá solicitar más de tres convocatorias en el término de un año desde la celebración de la primera.

Condiciones para ejercer el derecho de solicitud de



betebeharrak:

- Zinegotzi bakoitzari dagokion eskubidea da. Ildo horri jarraiki, ez dezake udal taldeak ordezkatu. Eskaera egiten duten zinegotzi guztiek sinatu beharko dute berori.

- Idatzia arrazoitua egongo da, Udalbatzak eztabaidatu eta bozkatuko duen proposamen zehatza barne.

- Sarrera Erregistroko zigilua edukiko du, eta bertako data frogagiritzat joko da.

- Eskaerarekin batera joango da Udalbatzak eztabaidatu eta bozkatuko duen akordio-proposamena.

- Proposamenak ez balu espedientea abian jarriko, eta hori beharrezkoa izango balitz, akordioak berak abian jarriko luke.

Zinegotziek eskaturiko ezohiko udalbatzak —nahiz eta eztabaidatu beharreko gaia legez kanpokoa edo udalerrinari ez dagokiona izan, eta Idazkariak edo Kontu-hartzaileak legez kanpokoa dela ohartarazi— egin, egingo dira, nahiz eta proposamenaren aurka bozkatu behar izan. Hau da, bilkurarako deia eta berori gauzatzea beste gauza guztien gainetik daude.

24. artikulua. Presazko bilkurak.

Ohiko epea baino laburragoarekin deitzen direnak dira.

Bilkura hauek egin ahal izateko gehiengo bakunak presa berretsi beharko du, eta horrek, esan nahi du presa arrazoitua behar dela. Era berean, berrespenak gai zerrendako puntu guztiez izan beharko du. Udalbatzak gai zerrendako punturen bat ez dela

Pleno extraordinario son:

- Es un ejercicio de derecho individualizado en todos y cada uno de los concejales, en este sentido no es sustituible por el grupo municipal; ha de ser firmado por todos y cada uno de los concejales solicitantes.

- El escrito ha de ser razonado incluyendo la propuesta concreta que ha de ser sometida a debate y votación del Pleno.

- Ha de tener entrada en el Registro General cuya fecha constituye prueba.

- A la solicitud se le acompañará el texto del acuerdo que se pretenda someter a debate y a votación.

- Si la propuesta no hubiera sido objeto de incoación del correspondiente expediente administrativo, y el mismo fuese necesario, la adopción del acuerdo dará lugar a dicha incoación.

En estos casos de Plenos extraordinarios a solicitud de miembros del Pleno, aunque el asunto a debatir sea ilegal o extramunicipal, aún con la advertencia de ilegalidad del Secretario o del Interventor, la sesión hay que celebrarla, aunque haya que votar en contra de la propuesta formulada. Es decir, la obligación de convocar y celebrar sesión esta por encima de toda otra consideración.

Artículo 24.- Sesiones urgentes.

Son aquellas que se convocan en un plazo inferior al ordinario.

Característica de estas sesiones es que hay que ratificar la urgencia por mayoría simple, lo que supone que tiene que estar motivada la urgencia. Y también que la ratificación tiene que hacerse con respecto a todos los puntos del orden del día, sin



presazkoa erabakiko balu, gai zerrendatik kenduko litzateke eta presakoak jotakoak bakarrik aztertuko lirateke.

excluir ninguno de ellos. Si alguno de los puntos del orden del día no mereciese la consideración de urgente por el Pleno, será excluido del orden del día y serán tratados el resto de temas que hayan sido considerados como urgentes.

BIGARREN ATALA. BILKUREN PUBLIKOTASUNA / SECCIÓN SEGUNDA.- PUBLICIDAD DE LAS SESIONES

25. artikulua. Isilpeko bilkurak.

Udalbatzaren bilkura guztiak publikoak dira. Hori horrela, ez dagoela isilpeko bilkurarik baieztatu liteke. Alabaina, herritarren oinarrizko eskubideei eragiten dieten gaietan, hots, Konstituzioaren 18.1 artikulua aitazten dituenetan, eztabaida eta bozketa sekretuak izan litezke, Udalbatzak hala erabakiz gero.

Udal-bilkura publikoa izateak zera suposatzen du: a) bilkura osoan publikoa bertan egon litekeela bilkura presentzialetan eta erdipresentzial edo mistoetan, eta streaming bidez botatzea horretarako gaitutako kanalean urruneko bilkurak, pleno aretoa itxita egongo delako; b) hartutako akordioen ziurtagiria eskuratzeko eskubidea, eta c) akordio eta eztabaiden publikotasuna.

Gai-zerrendako puntu baten eztabaida eta bozketa isilpeko jotzeko ondorengo eran jardungo da:

- 1) Puntuaren izenburua eta batzordearen irizpena publikoki irakurriko dira.
- 2) Ondoren, Alkateak, bere kabuz edo bilkuran dagoen edozein zinegotzik proposatuta, puntuaren eztabaida eta bozketa isilpekoak izatea proposatuko du.
- 3) Bozkatuko dute, eta proposamena onartuko,

Artículo 25.- Las sesiones secretas.

Todas las sesiones plenarios son públicas. En este sentido se puede afirmar que no existen sesiones secretas. Sin embargo el debate y la votación de aquellos asuntos que afecten al derecho fundamental de las y los ciudadanos a que se refiere el art. 18.1 de la Constitución, y siempre que así lo acuerde el propio Pleno, si podrán ser secretos.

La publicidad de una sesión municipal supone: a) posibilidad de presencia física de público durante toda la sesión en el caso de las sesiones presenciales y semipresenciales o mixtas y emisión vía streaming en el canal habilitado al efecto en el caso de las sesiones a distancia en tanto en cuanto la Sala de Plenos permanecerá cerrada al público; b) Derecho a obtener certificación de los acuerdos que se adopten y c) publicidad de acuerdos y debates.

Para declarar secretos el debate y la votación de un punto del orden del día se actuará de la siguiente manera:

- 1) Se dará lectura pública del título del punto y del dictamen de la comisión correspondiente.
- 2) Acto seguido el Alcalde o la Alcaldesa, a iniciativa suya o a propuesta de cualquier concejal/a presente en la sesión, propondrá declarar secreta la deliberación y la votación del punto.
- 3) Se efectuará la votación, admitiéndose la



Udalbatzaren legezko gehiengo osoak hala nahi badu.

4) Ondoren, bilkura-aretoa hustuko dute bilkura presentzialen eta erdipresentzial edo mistoen kasuan eta gero eztabaidatu eta bozkatuko dute. Urruneko bilkurak direnean, streaming bidezko emanaldia eten eta eztabaida eta bozketa egingo dira.

5) Jarraian, publikoa aretora itzuliko da bilkura presentzialetan eta erdipresentzial edo mistoetan; urruneko bilkuretan streaming bidezko emisioari berriz ekingo zaio eta, kasu guztietan, hartutako akordioaren eta bozketaren berri emango da.

26. artikulua. Bilkuran dagoen jendearen esku-hartzea.

Orokorrean bilkura-aretoan dagoen jendeak ez du parte hartuko eztabaidan. Alabaina, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 72. artikulua aitatzten dituen elkarte edo erakunderen batek gai zerrendako puntu bati buruz azalpenak eman nahi baditu, eta interesdun gisa administrazio-tramitazioan alde zuzeneko esku hartu badu, Alkateari jakinarazi beharko dio gutxienez bilkura-ordua baino 48 ordu lehenago.

Era berean, bilkura amaitu ostean, Alkateak udalaren intereseko gai zehatzei buruzko galdera-eskaerak egiteko aukera emango dio jendeari. Edonola ere, Alkateak txanda hau ordenatu eta itxiko du.

propuesta si obtiene la mayoría del número legal de miembros de la corporación.

4) Se procede al desalojo de la Sala de Plenos en el caso de las sesiones presenciales y semipresenciales o mixtas y se procede al debate y votación. En el caso de las sesiones a distancia se suspende la emisión vía streaming y se procede al debate y votación.

5) Se reintegra el público asistente a la Sala en el caso de las sesiones presenciales y semipresenciales o mixtas; en el caso de las sesiones a distancia se reinicia la emisión vía streaming y en todos los casos se da lectura del resultado de la votación con declaración pública del acuerdo adoptado.

Artículo 26.- Intervención del público asistente a la sesión.

La regla general es la no intervención ni participación del público asistente en el transcurso de la sesión. Ello no obstante, cuando alguna de las asociaciones o entidades a que se refiere el artículo 72 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local desee efectuar una exposición ante el Pleno en relación con algún punto del orden del día, en cuya previa tramitación administrativa hubiese intervenido como interesado, deberá comunicarlo al Alcalde con una antelación mínima de 48 horas a la celebración de sesión.

Asimismo, una vez terminada la sesión del Pleno, el Alcalde establecerá un turno de ruegos y preguntas por el público asistente sobre temas concretos de interés municipal. Corresponde al Alcalde ordenar y cerrar este turno.

HIRUGARREN ATALA. HERRITARREN EKIMENA / SECCIÓN TERCERA.- LA INICIATIVA CIUDADANA

27. artikulua. Herritarren ekimena Udalbatzari **Artículo 27.- Iniciativa ciudadana para proponer**



akordio-proposamenak egiteko.

Udal hauteskundeetan boto-eskubidea duten herritarrek Udalbatzari ondorengo proposamenak egiteko aukera izango dute: a) akordioak; b) jarduketak; eta c) araudi-proiektuak egiteko. Ekimen horiek gutxienez Errenteriako biztanleriaren % 10en —Udalaren Errolda ofizialean jasotakoak— sinadurekin egingo dira.

Ekimenari, herritarren sinadurekin batera, Erregistro Nagusian sarrera eman ondoren, Idazkari nagusiak gaiari buruzko txostena egingo du, edo Kontuhartzaileak, Udaleko diru-kontuei eragingo balie. Horrez gain, Udalbatzak gaia hobeto ulertzearen, beharrezkoak diren txosten guztiak egin ahal izango dira. Behin gaiaren berri emandakoan, dagokion batzordeak ekimenari buruzko irizpena emango du, edo bestela, Udalbatzaren lehenengo osoko bilkuran mozio gisa tramitatuko da, hots, Alkateak hala nahi izanez gero, irizpenik gabe. Kasu honetan, Idazkariak Bozera maileen batzordera gai zerrendako gainontzeko puntuekin batera eramango du. Bozera maileen batzordea entzundakoan, Alkateak erabakiko du Gai Zerrendan sartu edo ez.

Herritarren proposamena tramitzeko onartua izan bada, Udalak berori bideratzea herritarrei kostatako gastuen ehuneko hamar hartuko du bere gain, beti ere gastu horiek behar bezala zuritu eta sinadura-bilketa benetakoa dela egiaztatu ondoren.

Herritarren ekimenak herri-galdeketa egitea suposatuko balu, Toki-araubide Oinarriak arautzen dituen Legearen 71. artikulua xedatzen duenaren arabera egingo da.

acuerdos al Pleno.

Los vecinos que gocen del derecho a sufragio activo en las elecciones municipales podrán ejercer su iniciativa para elevar al Pleno propuestas de a) acuerdos; b) actuaciones y c) proyectos de reglamentos. Dichas iniciativas deberán ir suscritas por al menos el 10% de los vecinos de Errentería, según cifras oficiales del Padrón Municipal de Habitantes.

Presentada la iniciativa, junto con las firmas de los vecinos, en el Registro General, será la misma objeto de informe del Secretario General, o del Interventor si afectase a los derechos económicos municipales. Todo ello sin perjuicio de cuantos otros informes sean precisos para un mejor entendimiento del objeto sometido a resolución plenaria. Una vez informada, la iniciativa será sometida a dictamen de la comisión correspondiente, o bien será tramitada como moción en la primera sesión ordinaria plenaria que corresponda, sin necesidad de dictamen, a criterio del Alcalde. En este caso, el Secretario lo presentará a la Junta de Portavoces junto con el resto de temas del Orden del Día. Oída la Junta de Portavoces, corresponderá al Alcalde su inclusión en el Orden del Día.

En el supuesto de admisión a trámite de la propuesta ciudadana, Ayuntamiento asumirá el diez por ciento de los gastos efectuados por los vecinos para la formalización de la misma, siempre que dichos gastos estén debidamente justificados y se haya verificado la recogida de las firmas necesarias auténticas.

Si la iniciativa ciudadana conllevase la celebración de consulta popular, la misma se resolverá conforme a lo que dispone el artículo 71 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.



BIGAREN KAPITULUA. UDALBATZA EGIN AURRETIK BETE BEHARREKO BALDINTZAK / CAPÍTULO SEGUNDO.- REQUISITOS PREVIOS A LA CELEBRACION DE LA SESION PLENARIA

LEHENENGO ATALA. DEIALDIA / SECCIÓN PRIMERA.- LA CONVOCATORIA

28. artikulua. Kontzeptua.

Udalbatzarako bilkura-deiaren bidez udalbatzarkide guztiak deitzen dira osoko bilkurara etortzeko. Bertan, eguna, lekua eta ordua ipintzen da. Egintza derrigorrezkoa eta publikoa da, eta, beste gauzen artean, derrigorrez azertu beharreko gai zerrenda eduki beharko du.

29. artikulua. Deialdia egitea eta honen edukia.

Alkateak, hots, bilkurako buruak, deialdia egiteko ahalmena aukerakoa du, beti ere legeak espresuki dioen ondorengo kasuetan izan ezik: Udalbatza eratzeko bilkura egiteko, alde zuzenetik ezarritako dataekin ohiko osoko bilkurak egiteko, gutxienez Udalbatzaren laurden batek eskaturiko ezohiko bilkurak egiteko, eta zentsura-mozioak ikusteko. Gainontzeko kasuak aukerakoak dira. Alkateak ezin du eskumen hori ordezkatu.

Deialdiarekin batera ondorengo dokumentuak bidaliko dira:

- Aurreko bilkurako aktaren zirriborroa.
- Batzordeetako irizpenak.
- Gai zerrendako puntuei buruzko txosten tekniko-juridikoak.

Gai Zerrendarekin batera bidaliko dira: aurreko bilkurarako aktaren zirriborroa, batzordeetako irizpenak eta boto partikularrak eta emendakinak,

Artículo 28.- Concepto.

La convocatoria a la sesión plenaria es el acto a través del cual se cita a todos los miembros de la Corporación para su asistencia a la sesión, señalando al efecto lugar, día y hora de la misma. Es un acto preceptivo, público y deberá contener necesariamente, entre otros aspectos, el orden del día de los asuntos a tratar.

Artículo 29.- Ejercicio y contenido de la convocatoria.

La facultad de convocatoria es discrecional por parte del Alcalde, presidente de la sesión, salvo en los supuestos expresamente recogidos en la Ley como son: el pleno de constitución del Ayuntamiento, los plenos ordinarios con fecha preestablecida, los plenos extraordinarios solicitados por al menos una cuarta parte de los miembros de la Corporación y los que vayan a tratar la moción de censura. Los demás son discrecionales. Su ejercicio es competencia no delegable del Alcalde.

Junto con la convocatoria que se envíe se acompañarán los siguientes documentos:

- Borrador del acta de la sesión anterior
- Dictámenes de las comisiones
- Informes técnico-jurídicos relativos a los puntos comprendidos en el orden del día.

Junto con el Orden del Día, se enviarán el borrador del acta de la sesión anterior, los dictámenes de las comisiones y votos particulares formulados, las



baleude, eta gai zerrendako puntuei buruzko txosten tekniko-juridikoak. Deialdi hau zinegotzi guztiei Udaleko barne-posta bidez jakinaraziko zaie, hain zuzen 32. artikulua ezartzen duenari jarraiki, jakinarazpena paperik gabe eginez. Gainontzeko erakundeei (prentsa, auzo elkarte...) soilik gai zerrenda bidaliko zaie.

Ohiko bilkuretako deialdia derrigorrezkoa da eta ez du arrazoieta izan beharrik. Eta gairik ez izanda ere deituko da, kasu honetan Udalaren organo nagusiaren zeregina kontrol-lana egitea izango delarik. Aldiz, zinegotziek eskatu gabeko ezohiko deialdiak egiteko, aukerako eskumen bat denez, arrazoieta egin behar da, hori Alkateak egin dezakeelarik deialdiko dekretuan, edo hitzez bilkurari hasiera emateko orduan. Kasu honetan haren hitzak aktan jasota geratuko dira.

30. artikulua. Deialdia egiteko epea.

Ohiko osoko bilkuretako eta presazkoak ez direnak egiteko deialdiak gutxienez bilkura egin baino bi lanegun lehenago egingo dira. Egun horietako bat larunbata tokatuko balitz, bilkura ondorengo lanegunean egingo da.

31. artikulua. Ezohiko presazko Udalbatzak.

Ezohikoa eta presazko osoko bilkuren deialdia egiteko ez dago eperik, kasu honetan ez delako eperik exijitzen deialdia eta osoko bilkura egin tartean. Alabaina, zinegotziak bilkurara etortzea ia-ia galarazten dien gehiegikeriak saihestearren, presazko osoko bilkuretako deialdiak epe egokietan egin behar dira, hots, nolabait zinegotziek bilkurara etortzeko duten eskubidea urratu gabe. Horregatik,

enmiendas, si los hubiere, y los informes técnico-jurídicos relativos a los puntos comprendidos en el Orden del Día. Esta convocatoria se notificará a todos los concejales mediante correo electrónico interno municipal, de acuerdo con lo expuesto en el artículo 32, sin que proceda su notificación en soporte papel. Al resto de entidades (prensa, asociaciones ciudadanas...) se les notificará el orden del día exclusivamente.

La convocatoria de los plenos ordinarios es obligatoria y no precisa de motivación alguna. Se efectuará aunque no hubiera asuntos que tratar, primando en este supuesto el aspecto controlador del principal órgano municipal. Sin embargo la convocatoria de los plenos extraordinarios que no sean a instancia de los concejales, al ser una facultad discrecional, precisa de motivación que podrá efectuar el Alcalde bien en el decreto de convocatoria, bien oralmente al proceder a la apertura de la sesión, constanding sus palabras en este caso en acta.

Artículo 30.- Plazo de convocatoria.

En los plenos ordinarios, y en los no urgentes, el plazo de convocatoria es de al menos dos días hábiles de antelación con respecto al de la celebración de sesión. Si ésta coincidiera en sábado, la sesión se pospondrá al día hábil siguiente.

Artículo 31.- Los Plenos extraordinarios urgentes.

